



i.2. Numero komunztadura: $-(t)z-$ egitura datibodunetan (v $-zki-$)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Numero komunztadura: $-(t)z-$ egitura datibodunetan (v $-zki-$). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=45&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

datiboak, numero komunztadura, pluralgileak

Deskribapena

Euskara batuan, egitura iragangaitz zein iragankor datibodunetako absolutibo argumentuaren pluralgilea $-zki-$ da:

(1)	Loreak	gustatu	zaizkio
	lore.ABS.PL	gusta.PTCP	(3ABS).PL.edun.3SG.DAT

Euskara zuberotarrean, berriz, $-zki-$ beharrean $-(t)z-$ da sail horietako pluralgilea:

(2)	Loreak	gustatu	zaitzo
	lore.ABS.PL	gusta.PTCP	(3ABS).PL.edun.3SG.DAT

Banaketa dialektala

Fenomenoaren eremu dialektala Zuberoara mugatzen da (Zuazo 2014: 85). Zuazok (2014: 85) dioenez, egitura datibodunetan –iragangaitz zein ditransitiboetan– Zuberoan *-(t)z-* plural marka erabiltzen da erdialdeko euskalkiko *-zki-* pluralgilearen lekuan. Datibodun iragangaitzen artean, *záitzat* (eta *záitz*) ‘zaizkit’, *záitzak/záitzan* ‘zaizkik/aizkin’, *záitzo* ‘zaizkio’, *záitzkiü* ‘zaizkigu’ eta *záitzü* ‘zaizkizu’ jasotzen ditu Zuazok. Adizki ditransitiboen artean, ostera, *deizt* ‘dizkit’, *deizkü* ‘dizkigu’ eta *deitzót* ‘dizkiot’. Pluralgile honek indarra hartu du gazteen hizketan eta bestelako adizkiekin ere erabiltzen da. Hona hemen Zuazok (2014: 85) berak jasotako adibide bat:

- | | |
|-----|--|
| (3) | Fenoméno berik tútzak eta ene hipotesien abéa analizátü diátzat

‘Fenomeno berriak dituk eta ene hipotesien arabera analizatu dítat’ |
|-----|--|

Datu-basearen emaitzak

Zuazok (2014) esandakoarekin bat eginez, Urdiñarben (Zuberoa) bakarrik lekukotzen da *-(t)z-* pluralgilea datu-basean.

Aipamenak

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.